



**DONOSTIAREN
ALDEKO HITZARMENA**

**PACTO POR
SAN SEBASTIÁN**



DONOSTIAREN ALDEKO HITZARMENA

EAJ-PNV ETA PSE-EEren ARTEKO GOBERNU AKORDIOA

Maiatzaren 24ko hauteskundeetako emaitzek aldaketa nabarmena ekarri dute Donostiako Udalera: Udal Batzaren osieran aldaketa esanguratsuak eragin dituen egoera politiko berria, talde politikoen ordezkartze aldaketak eta talde berri baten sarrera.

EAJ-PNV da Udaletxeko lehen indarra 9 zinegotzirekin, PSE-EE da bigarren indarra 7 zinegotzi dituelarik. EH-Bilduk 6 ordezkari ditu, PPK berriz 3 eta Irabazik 2 zinegotzi eskuratu ditu.

Donostiako hiritarrek, azken hauteskunde hauetan eman den partaidetza handiarekin, Udal Gobernuan aldaketaren aldeko borondatea adierazi dute: hiri anitz baten aldeko apustu irmoa, garapenaren aldekoa, ezberdinen arteko elkarrizketa eta akordiotik proiektu eta erronka estrategikoak gauzatzeko dituen; ez aldebakartasunetik ez eta inposiziotik.

Hori da hain zuzen ere Donostiako Udalera 2015-2019 legealdirako EAJ-PNV eta PSE-EEren arteko Gobernu Akordiorako oinarria. Donostiak aurrera egin dezan Gobernu zabala eta sendoa, Donostiar ezberdinak batzeko konpromiso politikoa, eta Donostia eta donostiarren interes orokorrak indarrez defendatzeko; laburbilduz, gehiengoaren Gobernu gehiengoarentzat, eta Gobernu anitza hiri anitz batetarako.

Donostia ez da eraikitzen batzuk besteen aurka. Hiritarrek eman diguten babesarekin -EAJ-PNV eta PSE-EEk bozken %54 ordezkatzeko-, alderdikierarik gabe hiriak aurrera egiteko beharra duela sinesten dugu sutsuki, borondate ezberdinak batuz, erronka kolektiboak eta hiri proiektuak gehituz eta elkarbanatuz.

Hiriaren garapenerako eta aurrera egiten jarraitzeko beharrezko bultzada eraikitzailean, Udaletxearekin batera, eragile sozial, ekonomiko, kultural, kirol alorrekoak eta hiritarrek bidelagun aktibo izan behar dute. Lidergorako gaitasuna duen Gobernu sendoa nahi dugu, Donostiarako moduko gizarte dinamiko anitz eta ireki batentzako. Kudeaketa partekatua eta erantzunkidetasun publiko-hiritarra Donostiaren gaurko eta etorkizuneko desafioak elkarrekin ekiteko.

Enpleguaren sorrera eta berpizte ekonomikoa izango da datorren legealdian landuko dugun hiriaren erronka nagusienetako bat. Hirian aktibitate ekonomikoa eta berrikuntza erraztea eta sustatzea izango da Gobernu honen konpromisoa, inbertsio estrategikoak bultzatuz, ingurune fisiko egokiak eta neurri administratibo erraztaileak jarduera ekonomiko, merkatal, ostalari, turistiko, kultural, zientifiko eta lana eta ongizatea sortu dezakeen beste edozeinetarako.

Donostiako Udala, bere eskumenen baitan, bertako ekonomia bultzatzeko agente aktiboa izango da, sustapen ekonomikorako alor handi bat sortuz, Gizarte Kontseiluan inplikatu



egongo diren eragile sozial eta ekonomikoekin ekintza kontzertatu eta adostuak aurrera emanaz; bai eta gainerako instituzioekin, ezagutzan eta berrikuntza teknologikoan, zerbitzu aurreratuetan, bikaintasun turistikoan, dinamismo kulturean eta puntako komertzioan oinarrituko den ekonomia bati erantzuna emanaz.

Munduari konektaturik egongo den hiri irekia nahi dugu, inbertsio txiki eta handientzako erakargarria izango dena, ekintzaile txiki eta handientzako, enplegua eta garapen profesional zein pertsonala sortzeko gai izango dena, bereziki gazteentzat. Hiria hazkunde ekonomiko eta bere etorkizuna bermatzeko faktore ezinbesteko bat konektibitatea da.

Garraio azpiegitura eta komunikazioetan inbertsio estrategikoen aldeko apustua egingo dugu: Donostialdeako Metroa, Estación del Norte geltokian AHTren etorrera eta autobus geltokia eta Tabakalerarekin integrazioa, Hondarribia-Donostiako Aireportuaren bultzada, modernizazio eta eskaintzaren hobekuntza, bestak beste, dira inplikaturiko gainerako erakundeekin hitzarmenetik eta akordiotik bultzatuko ditugun proiektuak.

Donostiaren eta donostiar guztien garapen ekonomiko eta sozialaren alde egingo dugu lana. Ongizatea, kohesio soziala eta solidaritatea EAJ-PNV eta PSE-EEk egituratzen duten Gobernu honetako udal politiken bizkar hezurra izango dira. Hiriko bizilagun guztien bizi baldintza duinak bermatzen dituzten Gizarte Politiken aldeko apustua egiten duen Gobernuak, guztion artean eraiki dugun babes eta zerbitzu sozialen sistema mantentzeko, eta beharrezkoa balitz indartzeko, beharrezkoak diren baliabide ekonomiko eta materialak bideratuz krisi ekonomikoak desberdintasun sozialean eragindako efektu negatiboak minimora murriztu arte.

Integratzailea, anitza eta mundura irekia dagoen hiria izaten jarraitu behar du Donostiak. Guztiona den proiektua, eta Donostia bada proiektu amankomuna, eta izaten jarraituko du Donostiako hiritar guztiak bat sentitzen badira eta honen garapen komunean parte hartzen badute. Hauen adin, jatorri, bizi baldintza, erlijio edo kultura edozein delarik. Eta gurea bezalakoa den hiri batek bere erronkak gaindi ditzan eta guztion arteko elkarbizitza orekatu bat lortzeko, ezinbestekoak dira hiri balore sendoak, elkarbizitzarako baloreak eta ezberdinekiko errespetua, hau da, aniztasunarekiko errespetua.

Gehiengo batetik hiritarren gehiengo batentzat gobernatzeko konpromisoa hartzen dugu. Ikuspegi integratzaile batetik abiatuz, horretarako honako politikak jarriko ditugu abian:

-Suspertze ekonomiko eta enplegu sorrera: gazte, emakume eta 45 urtetik gorakoei arreta berezia eskainiz.

-Gazteen, adinekoen eta familia unitate berrien beharrei erantzuneko dien errenta moduko etxebizitza sozialen eraikuntza eta ahalbidetzea.

-Hiri garbiketa eta mantenua sendotzea.

-Komunikazio arloko azpiegiturretan inbertsio estrategikoak.



-Mugikortasun bertikalaren, irisgarritasunaren eta garraio publikoaren hobekuntza. Auzo guztietan dauden gune degradatuen berreskuratze urbanistikoa.

-Politika adinartekoei/intergenerazionaleri bultzada.

-Oroimenean eta biktima guztien aitortenean oinarritutako den elkarbizitza baketsu baten eraikuntza.

-Kultur eta kirol zerbitzuen diseinu eta kudeaketan hiritarren protagonismoa handitzea.

-Euskararen eta hizkuntza zein kultur aniztasunaren hiri eredu bezala Donostia indartzea, hau elkarbizitzarako instrumentu bezala erabiliz aurreratua eta kosmopolita den gizarte batean: Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburua

-Hiri lurren batasuna eta kudeaketaren deszentralizazioa barrutien bitartez, Altzako Barrutitik eta Igeldoko Udal Auzotik hasita.

-Gardentasuna eta Gobernu Ona: berritzailea, eraginkorra eta sarean lan egiten duen Udaletxea.

-Ingurumenaren jasagarritasuna eta hiri ardurarekiko hezkuntza

Hiritartasun eta kultur balore horien batuketa da EAJ-PNV eta PSE-EEren Koalizio Gobernuan ezinbestekoa eta lehentasunezkoa den proiektu kolektibo garrantzitsuenetariko baten zutabe nagusia: Elkarbizitzarako Kulturaren oinarritutako 2016ko Europako Kultur Hiriburutza. Herritarren energia-olatuak.

Udaletxetik hartuko dugu 2016 Fundazioko lidergoa, Patronatuan dauden beste erakundeekin zein 2016 Bulegoarekin elkarlanean, eta beharrezkoak diren esfortzuak gauzatuko ditugu proiektu hau aurrera eramateko orduan Donostiarako aukera paregabea eta historikoa den heinean.

Ezinbestekoa da donostiarrak berriz ere inplikatuak eta ilusionatuak sentitzea Donostia 2016 proiektuarekin eta honen parte izatea, hautagaitza fasean bizi izan genuen moduan. Donostia 2016 Europako Hiriburu Kulturalaren proiektua arrakasta partekatu bat bezala ulertzea lortu behar dugu, eta honek hiriko ondare eraldatzailea izan behar du etorkizunari begira.



ADOSTUTAKO HIRI PROIEKTUAK

Donostiako Udalean 2015-2019 legealdirako EAJ-PNV eta PSE-EEren arteko Gobernu hitzarmenean adostu eta akordatu ditugun ekintza, politika eta proiektuetan lau ardatz nagusi jasotzen dira:

- Enplegu sorrera eta aurrerabide ekonomiko eta soziala
- Kohesio soziala, elkarbizitza eta elkartasuna
- Gobernantza berria: gardentasuna, kudeaketa eraginkorra eta herritarrekin elkarlana-erantzunkidetasuna
- Kultur aniztasuna, euskara eta hizkuntza aniztasuna

Puntu horiek oinarri bezala hartuta, hirirako lehentasunezkoak diren neurria eta proiektu partekatu zein akordatuak jarriko ditugu martxan. Gobernu sendo baten oinarri izango diren proiektuak eta ezberdinen arteko elkarlana areagotuko duten proiektuak. Lidergo sendo batetik abiatuz Donostiak aurre egiteko eta dinamismo ekonomikotik, sozialetik eta kulturaletik garatzeko. Horretarako donostiarren hiriko birsorkuntza, ongizatea eta bizi kalitatea bultzatuz.

1 Donostia 2016 Europako Hiriburu Kulturala.

2016 Fundazioaren lidergotik eta 2016 Bulegoan zein Patronatuan dauden beste erakundeekin batera elkarlanean jardungo dugu berriz ere hiritarren inplikazio proiektuan lortzeko; beharrezko da komunikazioa hobetzea eta ekintzen eta eragile kultural, artistiko eta sozialen programaren arteko elkarlana erraztea. Bai hiri, lurralde eta estatu mailan, Donostiako erreferente kultural nagusiak kontuan hartuz (Musika Hamabostaldia, Zinemaldia, Jazzaldia, San Telmo Museoa). Bestalde, hiriburutzaren dimentsio europarra indartu behar dugu nazio zein nazioarteko foro edo beharrezkoak diren guneetan ezagutzera emanez; euskal enpresak proiektuan inplikatzea eta bisitariak eta turistak jasotzeko hiri prestatzea premiazkoak diren gaien artean daude.

2 Tabakalera eta Mundaizeko gune berritzailea

-Tabakalerak proiektu kultural berritzailea izan behar du, bertako sortzaile eta komunitate artistikoa indartzeko, ikus-entzunezko eta arlo teknologikoan zein bere nazioarteko konexioan, ekipamenduekin elkarlaneko sareak indartuz eta munduko beste kultur fabrikekin harremana sortuz. Horrela, jendarte heterogeneo bati zabaldu behar zaio, erabiltzaile zehatz eta gutxiengo batean zentratu ordez, modu honetan, jardun pedagogiko eta hezigarri bat burutuz kultur garaikidearen adierazpen ezberdinei dagokionez. Tabakalera martxan ipintzearekin batera Egiako auzoan, Cristina-Enan, Mundaiz inguruan eta Atotxako zein autobus geltokian hiri-erlaldaketa zabal eta sakon bat ekarri behar du berarekin.



-Inplikaturak dauden erakundeekin batera erantzun arkitektoniko bat eman behar diogu Abiadura Handiko Trenaren etorrerari eta Atotxako geltokiaren birmoldaketari, bere baitan Tabakalera eta lurperatutako autobus geltokia berria egongo direlarik.

-Mundaiz berriak, egun egoera degradatua aurkezten duenak, Tabakaleraren irekierak dakartzan birgaitzerako aukerak aprobetxatu eta modernizatzeko beharra du; bulegoak eta bizitegi-gune misto batean eraldatuz eta sormen eta kultur industriarekin erlazionatutako jardura ekonomikoak bereganatuz. Hau da, Berrikuntza Kulturean eta Ekonomikoan oinarritutako erakargune bat sortuz.

-Cristina-Enea parkea Tabakalera eta bere inguruarekin bat egin dezan proposatzen dugu, elkarbizitza eta aisialdira bideratutako gune zabal publiko bat osatuz.

3 Berrindartzeko ekonomikorako eta giza garapenerako plana

Bertako ekonomia suspertzeko esfortzuak, baliabideak eta neurri eraginkorrak bateratzea da gure helburua, duinak eta kalitatezkoak diren enplegu berriak sortuz, horrela inbertitzeko, negozio bat irekitzeko, denda bat ezartzeko, jardura ekonomiko berritzaile bat martxan jartzeko edo eta ikertzeko Donostia aktibo eta erakargarria bat lortuko litzateke. Horretarako, Suspertze Ekonomikorako Udal arlo handi bat eratuko dugu estrategia bateratu bat ezarriz. Hemen, arlo honekin zerikusia duten arlo anitzak eta erakundeak bateratuz. Denbora gutxian, Alkatetzari lotutako Gizarte Kontseilua deituz, eta ondorioz, administrazioko bikoiztasunak eta koordinazio eza ekidinez. Horrela, berrikuntzarekin eta negozio eta jardura ekonomiko berrien ezarpenarekin zerikusia duten izapide guztien leihatila bakar bezala jardungo luke. Bestalde, Miramongo Parke Teknologikoaren garapena bultzatzeko Eusko Jaurlaritzarekin elkarlana berrezarriko dugu Parkeko eta Udaletxeko jardura osagarriak izan daitezen, baita ere Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera sustapen ekonomikorako planak garatzeko bai Donostia mailan bai Gipuzkoa mailan ere.

-Obra eta jardura bahimenekin erlazionatutako izapideak eta emateak ahalik eta gehien mehetzea. Hiritarrek batera hartutako eraginkortasun konpromisoa betetzeko helburuarekin beharrezkoak diren baliabideak eta prozedimenduak baliatuko ditugu udal egiturari. Bahimenaren emate denbora ezarritako epea baino gehiago luzatuko balitz eskatzaileak tarifaren erdia ordainduko du.

-Eskuzaitzetako enpresaldearen garapenari ekin. Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, Zubietan kokatua dagoen guneari ekin, Donostiako Udalarekin batera Eusko Jaurlaritza jardura ekonomikora bideratua dagoen lur eremu honen jabetza partekatzen duelako.

-Erdialdeko ingurune urbanoetan enpresa-proiektu berrientzat espazioak sortzea (coworking, inkubagailuak) erabilera gabe dauden edo eta publikoak diren lokaletan. Auzo guztietan dauden gune degradatuen berreskuratze urbanistiko planaren barruan.



-Merkataritza, Ostalaritza eta Turismo zinegotzigoen sorrera eta Modaren Clusterra. Hiriak dituen motor ekonomiko eta enplegua sorrarazten dituzten sektoreen artean turismoa eta merkataritza aurkitzen dira. Krisi urteetan zehar turismoaren sektoreak aurkeztu du joera positiboena, honek enpleguak jasan zitzakeen ondorio kaltegarriak geldiarazi dituelarik. Bestalde, merkataritzaren barruan modaren sektoreak pisu esanguratsua aurkeztu du hiri mailan. Merkataritza, Ostalaritza eta Turismo zinegotzigoa sortuko dugu ostalaritza, hoteletako jarduera eta gertuko eta kalitateko dendak laguntzeko. Bestalde, berrikuntza eta merkatal sormena bultzatuz. Halaber, "Modaren Clusterra" ere sortuko dugu arlo honetan sormena eta diseinua dinamizatzeko eta moda munduan dauden gazte ekintzaileen enplegu eta garapen profesionaleko aukerak eskaintzeko.

4 Sagues Berria: ekipamendu estrategikoa, oinezkoentzako eta aisialdirako kalitatezko hirigunea, Monpasera pasagunea.

-Osoko ikuspegia duen hiri proiektu eta interbentzio garrantzitsua eskatzen du Sagues eta Monpas bitarteko guneak. Donostiako itsasertzeak berritzaileak eta jasangarriak diren erantzun arkitektoniko eta paisajistikoak behar ditu, aisialdira eta turismorako erakargarriak eta kalitatezkoak diren gune publikoak berreskuratuz. Modu honetan beste gune nabarmen bat sortuko litzateke Donostian.

-Sagues Berriak hiru elementuren beharra du:

- **Hotel ekipamendu estrategikoa:** Hiria Antolatzeke Plan Orokorrean azaltzen den bezala, surfarekin lotutako kirol eta aisialdi eskaintza ezarri.
- **Sagues eta Monpas bitarteko oinezkoentzako pasagunea.** Ingurumen baimen guztiak jasotzen zituen proiektua berreskuratzeke ahaleginak egingo ditugu, berriz ere Estatuko Gobernuaren finantziarioa lortuz. Donostiak itsasertzean dituen 8 kilometroak amaitzeko berebiziko obra izango litzateke hau, donostiarrontzako eta bisitariarentzako itsasora begiratzen duen talaia paregabea eskainiz.
- **Sagueseko gunearen berpiztea.** Aisialdi eta merkataritza gunea handituko lukeen kirol eta oinezkoentzako espaloien zabalpena. Aparkalekuak Añarbeko Urak dauden gunera aldatuz.

5 Donostialdeako Metroko estazio berriak, Easoko geltokiko trenbidearen lurperatzea eta Loiolako Erriberetako tren-aldatzailea

-Donostialdeako Metroaren garapena eta hiri erdigunetik igarotzen den pasantearen eraikuntza bultzatuko dugu. Jasangarria eta kalitatezkoa den trenbide sare baten aldeko apustua eginez. Modu seguru eta azkar batean Donostiako eremu metropolitanoarekin konektatuz eta aldi berean hiriko ekialdeko eta mendebaldeko auzoak elkartuz.

-Hitzarmen bat zehaztuko dugu Udaletxearen eta Eusko Jaurlaritzaren artean, Loiolako eta Altzako geltokiak eta bertako eremuak behar dituzten obrak eta ekintzak aurrera eramateko.



Lugaritzetik Loiola bitarteko pasantearen lanak eta urbanizazioa zehaztuko ditugu (epeak, trafiko eragina, segurtasun neurriak) Unibertsitate, Kontxa-Erdiguna eta Easo-Morlanseko geltoki berriak kontuan hartuta. Proiektu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren inplikazioa lortuz.

-Eusko Jaurlaritzaren eta ADIFekin batera Loiolako Erriberetako Euskotren-Renfe tren-aldatzailearen eraikuntza hitzartuko dugu, Gipuzkoako trenbide sarearekin bat egiteko gako den proiektua Donostiako konexio maparen barruan.

-Donostialdeko Metroko pasante berriak gaur egun Easo geltokian dauden trenbide lerroek hartzen duten lurzoru zati handi baten libratzea ekarriko du, modu honetan, Euskotren Geltokian hirirako eremu berriak ahalbideratuko dira. Trenbide sareak, lur azpitik igarotzean, kalitatezkoa den gune berri bat ekarriko du, baina hori berreskuratzeko beharrezkoa izango da modu integral batean inguru horretan jardutea. Horrela, zentralitateko beste gune bat sortuko litzateke irisgarritasuna hobetuz eta aukera ekonomiko berriak sortuz. Gune berriaren diseinua ETSrekin eta hiritarrekin batera burutzeko konpromisoa hartzen dugu.

6 Carlos I.ak sortzen duen hesiaren behin betiko ezabaketa, Amara auzoaren biziberritze integrala, Isabel II.aren oinezkotzea eta Gobernuaren Ordezkariordeztzaren eraikina hirirako berreskuratzea.

-Udal Gobernu honek Amarako bizilagunek urte luzez egindako errebendikazioak bereak egiten ditu eta bat egiten du Carlos I.aren ezabaketarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiari hitzarmen bat proposatuko diogu Martuteneko bi mailatako errotonda eta Marrutxipiko lotura egin ostean eta honen erakuntzaren ardura hartu dezan lan egin ondoren, gune hau bere osotasunean hiribide urbano bihurtzeko.

-Biaduktuaren ezabaketak eta honen hiribide bihurtetako, oinezkoentzako erdigune handi bat baliatuz eta trafikoa aldeetara ordezkatzuz, eremu guztiaren biziberritzea aurrera eramatea ahalbideratuko du (Cortazar arkitektoak, Isabel II), honekin batera barne trafiko berrordenatuz, aparkatzeko guneak baliatuz, tokiko merkataritza indartuz, ostalaritza eta Amarako ekonomia berpiztuz. Auzorako modu integralean ulertutako modernizazio apustu honek barnealdean dauden plazetako hobekuntza eta Isabel II.aren oinezkotzea ere jasotzen ditu, parte hartzailea izango den prozesu batean bizilagunen inplikazio osoa lortuz.

-Pio XII.ean dagoen Gobernuaren Ordezkariordeztzaren eraikina hirirako berreskuratzea dugu helburu administrazio zentralarekin negoziatu ondoren. Honek, Amara Berri auzoko Kultur Etxe berria jasoko luke gune hiritar eta kultural bat bezala. Horrela, Anoetan dagoen Ernest Lluch Kultur Etxea bertara aldatuko litzateke, eta aldi berean eraikin honek Amarako barrutiaren egoitza hartuko luke.



7 Etxebizitza berrien parkea, gazte eta adinekoentzako alokairu etxebizitzak eta Loiolako Kuartelak

-Txomin-Enea, Julimasene, Jolastokieta, Etxegi, Ilarra eta Portutxon aurreikusita dauden etxebizitza garapenaren lehen eta bigarren fasearekin batera, hirian, Mundaiz eta Infierno bezala, degradatuak dauden gunek biziberritzeko lanak burutuko ditugu planteamendu honen barruan; bizitegiak eraikitzeo aukera eta bateragarriak diren jarduera ekonomikoak ezarriz.

-Egingarria eta arrazoizkoa den Loiolako Kuarteletako lur eremua berreskuratzea posible egingo duen negoziaketa bati ekingo diogu Defentsa Ministerioarekin batera, hiriak gaur egun duen etxebizitza eskaintza handitzeko eremu bakarrenetakoa da hau, eta honek, hiritarren etxebizitza beharrei erantzuna ematea ahalbidetzen duen gunea da. Libreak, tasatuak eta BOEak diren 1500 etxebizitza berriekin, bereziki gazte donostiarren beharretan fokatur.

-Gazte eta adinekoentzako alokairu etxebizitzak bultzatuko ditugu Ategorrietan (Uliako Haztegiak), Larratxoko Iralen (Eusko Jaurlaritzarekin negoziaketa eskatzen du honek) eta Amara kalean (Poliziak dituen etxeen berreskurapena negoziatuz), baita ere, ekipamendu katalogazioa duten partzelan.

8 Hiri garbi eta zaindu baterako plana

-Donostia erreferentziatzeko hiri bilakatu behar da berriz ere kale, hondartza, hiri-altzari, lorategi eta parkeen garbiketan eta mantenuan. Hiriko garbiketa zerbitzua eta mantenu lanak areagotzeko konpromisoa hartzen dugu hiriko auzo guztietan, lan hauen eraginkortasuna eta kalitatea hobetuz. Gainera, auzo bakoitzak maiztasun berezi baten barnean garbiketa zerbitzuak jasoko lituzke eta aparteko tratamendua emango zaie data esanguratsu eta festei.

-Kimatze plan bat martxan jartzea, lehentasunezkoak eta premiazkoak diren guneean arreta berezia jarriz. Bidebieta, Amara edo Bizkaia pasealekua besteak beste.

-Gizalegean oinarritutako akordioak burutzea, merkatari eta ostalarien sektoreekin eta hezkuntza zentroekin batera. Akordio hauek hiri garbiago bat lortzeko pausoak bezala ulertuz.

9 Plan solidario, inklusibo eta adinartekoa.

-Hiritar ororentzako Donostia abegikor eta bizigarri bat nahi dugu, udal zerbitzu guztietan sarrera izango dutelarik beren adina edo baldintzak kontuan izan gabe, eta bertakoen edo kanpokoen benetako beharrei erantzungo dien Donostia lortuko dugu. Ezin diegu bizkarra eman, langabeziaren arazo larria sufritzen dutenei, beren etxebizitza galtzen dutenei eta hilabetea igarotzeko arazoak dutenei.

-Pertsona eta kolektibo ahulenen giza-bazterketa eta desoreka sozialak ekiditeko eta murrizteko udal laguntza eta gizarte politikak mantenduko ditugu. Bereziki haurtzaro



adinekoei. Ume hauen oinarrizko beharren bermatzearen alde egingo dugu lan. Eskola denboraldiaz kanpo, elikagai falta izan ez dezaten.

-Hirugarren Sektoreko Institutua martxan jartzearen alde lan egingo dugu. Hirugarren Sektoreko eragile, erakunde, elkarte eta GKEentzako baliabide koordinazio, politika trukatzeko, zerbitzu eta gogoetarako topagunea sortuz. Urte asko daramatzatelako gure hirian aparteko integrazioa eta lan solidarioa esfortzu handiz gauzatzen.

-Zahartze Aktibo batean murgiltzera bideratuak dauden pertsona helduentzako arreta politikak garatuko ditugu; erkidegoaren bizitzan parte hartuz, bizi ohitura osasungarriak bultzatuz eta segurtasuna bermatuz.

-Planteamendu honen barruan irisgarritasun bertikala, igogailuz eta eskailera mekanikoz, hobetzeko lanak aurreikusten dira Aiete, Egia, Larratxo eta Amara Zaharrean. Gazte eta adinekoentzako alokairuko etxebizitzak Ategorrietan (Uliako hazitegiak), Amaran eta Larratxon. Erretiratuen Etxeetan hobekuntza eta berritze lanak eta hesi arkitektonikoen ezabaketa gune publikoetan, beti ere sektoreko eragile eta elkarten eskutik.

10 Giza Eskubideen eta Bitartekotzaren Nazioarteko Institutua Aieteko Jauregian eta Bake, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Batzordea.

-Donostiako Udaletik oroimen kolektiboan eta, inor baztertu gabe, biktima guztiei eragindako kaltean oinarritutako elkarbizitzaren eraikuntzan laguntzeko konpromisoa hartzen dugu. Akordio batera iristea Udalean ordezkaturik dauden talde guztiek Bakea, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Batzordean parte hartu dezaten.

-Tokiko Biktimen Foroa deituko dugu.

-Giza Eskubide eta Bitartekotzaren alorrean erreferente bilakatuko dugu Aieteko Jauregia, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera hitzarmen bat sinatuz alor hauetan adituak diren irakasle zein ikerlariekin batera elkarlanean jarduteko. Bestalde, nazio eta mundu mailako erakundeen inplikazioa ere lortu nahiko genuke Aieteko Jauregian. Europa eta nazioartean, Jauregia bera, Giza Eskubideen defentsan eta gatazken bitartekotzaren formakuntza, azterketa eta jardunean adituentzako erreferente bilakatuz.

11 Altzako Barrutia eta Igeldoko Udal Auzoa. Kultura eta Kirol Kontseiluak.

-Hiriko lehen barruti bezala Altzako barrutia jarriko dugu martxan, eta aldi berean Igeldoko Udal Auzoaren aldeko apustua egingo dugu, Foru Aldundiak agindutako banaketa dekretuaren inguruan Epaitegiak behin betiko adierazpen bat gauzatzen duenean. Barrutiek eragingo duten kudeaketaren deszentralizazioa eta Altzako Barrutiko Zinegotziarekin batera, bertako bizilagunek zein ekialdeko auzoetako bizilagunek, modu zuzen batean, inbertsioak, obrak eta lehentasunezko gaiak zehaztean parte hartzeko aukera izango dute Barrutira bideratuak dauden aurrekontuetan. Gertutasuna eta gardentasuna izango dira ardatz bizilagunen bizi



kalitatea hobetzeko eta administrazioko kudeaketa modu eraginkor batean gauzatzeko. Urtebeteko funtzionamenduaren ostean, diagnosi bat gauzatu da. Honen emaitza positiboa balitz, beste barrutien eraketa gauzatu litzateke legealdi guztian zehar.

-Kontseiluak: Partekatutako kudeaketa publikoa. Hiriko arlo desberdinetan lan egiten duten hiri eragile eta elkarteak, modu partekatu eta aktibo batean, hiriko politiken diseinuan eta erabakiak hartzean inplikatu daitezten lortu nahi dugu. Horretarako, bi Kontseilu berri eratzea eta hauetan parte hartzea ezinbestekoa dela ulertzen dugu: Kultura Kontseilua eta Kirol Kontseilua. Arlo hauetan lan egiten duten profesional independenteak, klubak, erakundeak eta elkarteak batuko dira bertan. Elkarlanaren eta erantzunkidetasunaren alde egitea da gure helburua, horregatik, Kontseilu hauetan aurrekontuetako lehentasuna, hartu beharreko neurriak eta neurri estrategikoak zehaztuko eta elkar-banatuko dira.

12 Kirol instalazioen hobekuntza, Altzako kiroldegia eta Anoetako estadioaren eta miniestadioaren birmoldaketa

-Alta polikiroldegi berriaren eraikuntza lehenetsiko dugu, gimnasia erritmikoari eta waterpoloari zuzendutako guneekin; baita ere aparkamendu plaza berriekin.

-Udal Kirol instalakuntzen berritze eta hobekuntza plan bat bultzatuko dugu, Kirol Kontseiluarekin batera ezarriko ditugularik lehentasun guztiak.

-Anoetako kirol instalazioek aurkezten duten egoera zaharkitua ikusita eta gune honen erabilera optimizatzeko helburuarekin, Anoetako estadioaren eta miniestadioaren birmoldaketa bultzatuko dugu. Maila goreneko lehiaketak jasotzeko instalazio eta zerbitzu berriek, beharrezkoak diren baldintzak jasotzen dituztelarik. Eusko Jaurlaritzarekin elkarlaneko puntuak zehaztuko ditugu eta aldi berean, Foru Aldundiaren inplikazioa bilatuko dugu.

13 Martutene-Txomin, uholdeen aurrean segurtasuna. Urumearen berreskuratzea eta garbiketa.

-Eusko Jaurlaritzako URA sailarekin elkarlana eta erakundeen arteko akordioak bultzatu eta indartuko ditugu, lehenbailehen, Urumea ibaiaren lerro guztian eta bereziki Martuteneko inguruan uholdeak ekiditeko eta Planean onarturik dauden obretan modu azkar batean jarduteko. Ezinbesteko lehentasuna duen helburua da hau. Txomin-Eneako garapena amaitua ez dagoen bitartean (1.500 etxebizitza), Martuteneko bizilagunei bideratuak dauden udal zerbitzu publikoak eta hiri mantenua indartu behar ditugu.

-Arteleku eraikinak izan behar duen azken erabilera Foru Aldundiarekin batera negoziatzearen aldeko apustua egiten dugu, urbanizazio berrian izango duen papera eta bestelako erabilerak (kirola, kultura...) zehaztuz.

-Bestalde, Urumea ibaiaren uholdeak eta ur goraldiak eragiten dituen pilatutako lokatza eta hondarraren garbiketa bat egitea proposatzen dugu; gainera bere nabigagarritasun ezaren



arazoa ere konponduko luke. Hiriak, berriz ere, bere begirada ibaien jarri dezala nahi dugu, eta aldi berean, gurera datozen bisitari eta turistek ibai inguruan gauzatu daitezkeen aisialdi eta kirol ekintzekin aprobetxatzea. Horretarako, Ibaialdeko ibai-parkearen proiektua garatzea ezinbestekoa da.

14 Hiri mugikortasun jasangarria eta oinezkoentzako guneak berreskuratzea

-Hiri mugikortasun jasangarriaren eredu izaten jarraitu behar du Donostiak. Oinezkoentzako gune berriak ahalbidetuko ditugu hirian. Bizilagun, merkatari eta ostalariekin batera hitzartutako erabakiak izango dira hauek. Hiritarren elkarbizitza eta aisialdia kale eta plazetan laguntzeko, eta gune hauen merkatal eta berpizte ekonomikoa bultzatzeko.

-Alokairu bizikleten udal zerbitzua zabalduko dugu, alokatzeko gune berriak ezarriz hiriko gune altuetan dauden auzoak lehenetsiz. Aldi berean, bizikletak aparkatzeko gune bereziak egokituko ditugu hiriko gune desberdinetan eta txirrindularien eta oinezkoen arteko elkarbizitza hobetzeko edukazioa eta kontzientziario kanpainak bultzatuko ditugu.

-Hiriko gune altuetan dauden auzoetako Dbus zerbitzua hobetuko dugu. Besteak beste, Uliia eta San Antonion mikrobusak ezarriz edo eta Aiete-Pagolako maiztasunak hobetuz.

-Udal aparkamendu plazen alokairua edo kontzesioa ahalbidetuko dugu denboraldi epe zehatz eta malguetarako, hiritarren eskaeraren arabera libre dauden aparkamendu plazetan. Plaza horietako batzuk motorrak aparkatzeko guneak sortzera bideratuko ditugu. Bestalde, Martuteneko eta Añorga Txikiko tren geltokietan disuasio aparkalekuak ahalbidetuko ditugu.

-Aparkatzeko Minusbalotasuna duten Pertsonen Europar Txartela de MM bineta dutenei TAO bineta. Honi, gehitu egingo diogu dependentzia handia duten pertsonak eta hauen zaintzaileak.

15 Hiri gazte eta dinamikoa

-Udal Gobernu honentzat zeharkako gazte politikak martxan jartzea lehenetsuneko helburuetako bat ere bada. Donostian bizi nahi duten gazteentzat eta beren bizitza pertsonala zein profesionala garatzeko Donostian mantendu nahi dutenentzako aukerak eskaintzeko. Eta bizi baldintza eta aukera horien barnean, etxebizitzaren alorra derrigorrezko arloa da, horretarako alokairu etxebizitzak eskainiko ditugu Ategorrietan (Uliako hazitegiak), Iralen (Larratxon) eta Amaran. Honekin batera, enpresa ekimen bat martxan jartzeko edo negozio bat irekitzeko diru laguntza lagungarri eta zehatzak behar dira. Aisialdi, kultura eta erakargarria den eskaintza batekin bateratzea beharrezkoa delarik, gazte eragile kulturalekin bat eginez.

16 Ondarearen garrantzia

-Donostiako hiritarrek, hiriko ondare arkitektonikoa eta kulturalaren balioa ezagutu eta apreziatu dezaten nahi dugu. Ikuspegi turistikoa, kultural eta historikoa batetik bere balioa zein



den azpimarratzearen alde egiten dugu. Ondarea babesteko modurik onena, ondareari arrazoizko erabilera bat ematea da. Horregatik, Bellas Artes eraikinari erabilera ematearen alde egiten dugu, ezarriak dauden babes baldintzak errespetatuz, beti ere erabilera eta aukera guztiak aztertuz, kulturala ere. Parte Zaharra eta Kaiari egokia den babes bat ematea beharrezkoa dela uste dugu, honen mantentzea bermatzeko eta berezitasuna azpimarratzeko. Hiriak dituen zabalgunek desberdinetan aurkitzen diren elementuak bezala. Azkenik, Urgull Mendiaren balio historikoa babestea ere gure apustuetako bat da. Mendiaren erabilera eta biziberritzea helburu duen plan bat martxan jarriz eta bere balio turistikoa ere azpimarratuz.

Gauzak horrela, Donostiaren Aldeko Hitzarmena eta Donostiako Udaleko Gobernu Akordioa aurrera eramateko konpromisoa hartzen dute EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeek:

EAJ-PNV

PSE-EE

Eneko Goia Laso

Ernesto Jose Gasco Gonzalo



TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Eneko Goia	Alkatea
Ernesto Gasco	Lehenengo Alkateordea
Miren Azkarate	Bigarren Alkateordea
Duñike Arrizabalaga	Hirugarren Alkateordea
Juan Ramón Viles	Laugarren Alkateordea
Jaime Dominguez-Macaya	Tokiko Gobernu Batzarraren Idazkaria
Enrique Ramos	Lehenengo ordezkoa Tokiko Gobernu Batzarraren Idazkaritzan
Pilar Arana	Bigarren ordezkoa Tokiko Gobernu Batzarraren Idazkaritzan
Marisol Garmendia	
Aitziber San Roman	

DELEGAZIOAK

Miren Azkarate

Donostia 2016, Kultura, Euskara eta Hezkuntza

Juan Ramón Viles

Presidentzia eta Gardentasuna, Giza Baliabideak eta Berrikuntza

Jaime Dominguez-Macaya

Ogasuna eta Finantzak

Pilar Arana

Mugikortasuna eta Garraioak

Aitziber San Roman

Ekintza Soziala

Martin Ibabe

Kirola eta gazteria, Hiri Segurtasuna eta Babesa



Ernesto Gasco

Sustapen Ekonomikoa, Merkataritza, Ostalaritza eta Turismoa

Enrique Ramos

Hirigintza Jasangarria, Etxebizitza eta Hiri Proiektuak

Marisol Garmendia

Gune Publikoak, Ekologia eta Festak

Duñike Arrizabalaga

Auzoak eta Deszentralizazioa, Erantzunkidetasun Hiritarra, berdintasuna eta Kooperazioa

Miguel Ángel Diez

Bide Publikoak eta Ingurugiroa